

MAIN
*Multilingual Assessment Instrument
for Narratives*

N. Gagarina, D. Klop, S. Kunnari,
K. Tantele, T. Välimaa,
U. Bohnacker & J. Walters

Basque version

Translated and adapted by
Maria-José Ezeizabarrena

(based on the revised version in English)

© ZAS Papers in Linguistics 64 (2020)

How to cite this version:

Gagarina, N., Klop, D., Kunnari, S., Tantele, K., Välimaa, T., Bohnacker, U. & Walters, J. (2019). MAIN: Multilingual Assessment Instrument for Narratives – Revised. Materials for use. *ZAS Papers in Linguistics*, 63. Basque version. Translated and adapted by Ezeizabarrena, M.J.

MAIN: Basque

Narrazioak hizkuntza askotan neurtzeko tresna (Euskal MAIN)

Maria-José Ezeizabarrena

The Multilingual Assessment Instrument for Narratives (MAIN), euskaraz ‘*Narrazioak hizkuntza askotan neurtzeko tresna*’, 2012an diseinatu zuten, oso txikitan hizkuntza bat edo gehiago bereganatzen dituzten haurren narrazioetarako trebeziak neurtzeko. Hasiera batean, MAIN 3 eta 10 urte bitarteko haurrentzat garatu zen, baina ikerketa berriek tresna hau haur zaharragoekin, nerabeekin eta helduekin ere erabil daitekeela erakutsi dute. Haurrek narrazioak ulertzeko eta ekoizteko duten trebetasuna neurtzeko aukera ematen du diseinu honek, haurrek dakizkiten hizkuntza bat baino gehiagotan, eta ipuinak kontarazteko edo elizitzateko hainbat modalitatetan, gainera: eredu-ipuina, birkontakteta eta kontakteta. 2012ko bertsioa 15 hizkuntza eta hizkuntza-konbinaketetan testatutako 3 eta 10 urte bitarteko 500dik gora haur elebakar eta elebidunen datu-bilketan oinarrituta garatu zuten.

2019an ingelesezko bertsioa berrikusi zuten, 2013-2019 bitartean Alemanian, Errusian eta Suedian jasotako 700 haur elebakar eta elebidunen MAIN datuetan oinarrituta: 2500dik gora ipuin-transkribapenak eta 24.000 inguru lagunen ulermen- galderen erantzunak osatu zuten lagin hura. EUSKARAZko bertsio honek 2019ko azkeneko ingelesezko bertsioa du oinarri.

MAINek lau istorio paralelo barne-hartzen ditu. Istorio bakoitza oso kontuz diseinatutako sei irudiko sekuentzia bat da, antolaketa-eredu multidimentsional baten barruan. Istorioek kontrolatu - (edo neurtu-)tako konplexutasun kognitibo eta linguistikoa dute, pareko makroegitura eta mikroegitura, eta baita pareko egokitasun maila eta sendotasun kulturala ere.

MAIN oraindik arautze bidean badago ere, badaude jada estandarizatutako prozedurak ebaluazioan, esku-hartzean eta ikerketan erabil daitezkeenak. MAINen erabilerari buruzko zehaztasun gehiago jakiteko ikus bedi (ingelesez idatzitako) *ZAS Papers in Linguistics* 63 (2019, pp. iv-xii)-eko “*Background on MAIN – Revised, how to use it and adapt it to other languages*” kapitulua. Ondoko estekan dago eskuragarri: www.leibniz-zas.de/en/research/publications.

Dokumentu honek ondorengoak barne-hartzen ditu:

- Ebaluaziorako jarraibideak
- *Katuaren, Txakurraren, Txorikumeen eta Ahuntzumeen* ipuinen: Protokoloak eta Puntuazio-orriak
- Galdetegiak
- Istorioen gidoiak

Ebaluaziorako Jarraibidea

MAIN, 3-10 urte bitarte inguruko haurrentzat dago hasiera batean pentsatuta, baina erabil daiteke haur zaharragoekin, nerabe eta helduekin ere. MAINek biak neurtzen ditu, narrazioen ulermena eta ekoizpena. Istorioa kontarazteko modu baterako baino gehiagotarako aukera ere ematen du: Eredu-ipuina, birkontaketa eta kontaketa. Kontarazteko prozedura bat edo beste aukeratzea ebaluazioaren helburuen eta beharren arabera izango da. Hala, aztertzaileek nahierara erabaki dezakete (adz. eredu-ipuina/ birkontaketa eta ondoren kontaketa, edo kontaketa bakarrik eginaraztea).

MAIN diseinuak haur bera hizkuntza batean baino gehiagotan ebaluatzeko aukera ematen du, eta edozein hizkuntza izan daiteke ebaluatzeko lehenengoa. Haur elebidunen kasuan, bi hizkuntzak 4tik 7egunera bitarteko tartean testatu beharko liriteke, hizkuntzen arteko eragina ahalik eta txikiena izan dadin, eta baita entrenamenduarena eta *carry-over efektua* edo aurretik egin izanaren efektua ekiditeko. Testuinguru elebakarra sortu eta *code-switching* edo hizkuntza-txandakatzea eragozteko haurrak EZ lituzke pertsona berak testatu beharko bi hizkuntzetan.

Materialak


- 4 ipuinen irudi-sekuentziak, *Txorikumeak*, *Ahuntzumeak*, *Katua* eta *Txakurra* (ipuineko hiruna kopia (koloretakoak), kopia bakoitza bere gutunazalean: 12 gutunazal, guztira).
- 4 istorio-gidoi / testu-estimuluak: *Txorikumeak*, *Ahuntzumeak*, *Katua* eta *Txakurra*.
- Grabatzeko (audio- edo bideo-) ekipoa.
- Puntuazio-protokoloak, makroegituraren analisiarenak, barne-egoera terminoena eta ulermen-galderenak.
- Galdetegia (gurasoek betetzekoa).

Jarraibidea

Materialak nola prestatu

1. Irudiak jaisteko jo esteka honetara: www.leibniz-zas.de/en/service-transfer/main
2. PDF fitxategi bakoitza (irudi-sekuentzia/istorioa) hiru aldiz inprimatu, koloretan, kalitate oneko inprimagailuan, A4 orrialde zurietan, irudi bakoitza 9 X 9 cm-ko neurriarekin.
3. Irudiei atzeko aldean (1-6) zenbakia jarri.
4. Irudiak bi lerrotan moztu.
5. Irudiak elkarrekin erantsi, 6 irudiko zerrenda bat osatuaz, beheago ikusten den bezala, eta bi unetan tolestu (1 hartu, 2 hartu, tolestu, 3 hartu, 4 hartu, tolestu, 5 hartu, 6 hartu).

Kontuz: Ez moztu eta ez erabili “nola tolestu” jarraibidehauetako irudi txikiak.



6. Irudi-sekuentzia bakoitza (6 irudiak) gutunazal banatan sartu, eta markatu bakoitza kolorez edo bestelako markaren bat baliatuaz (adibidez, puntuak), ipuina identifikatzeko.

Ebaluaketa nola egin

- Ziurta ezazu ipuinen protokoloak eta jarraibideak ondo ezagutzen dituzula.
- Presta ezazu saioa grabatzeko audio-/bideo ekipoa. Grabatzen jarri, beroketa-saioa hasi aurretik. Ziurta ezazu saio osoa grabatzen duzula, ulermen-galderei haurrak ematen dien erantzunak barne.
- Beroketa saioak aurretik duzun eskarmentuan eta ingurune kulturean oinarrituta egon beharko luke. Haurrarekin hitz egiterakoan saiatu harreman ona sortzen eta galdera batzuk egin iezazkiozu haurrak NZ-galderak ulertzen dituela ziur izateko. Galdetu, adibidez: *nola izena du zure lagun onenak? Telebistan zer gustatzen zaizu ikustea? Gustatzen al zaizu ipuinak kontatzea? Gustatzen al zaizu ipuinak entzutea?*
- Ziurta ezazu irudi-segida bera barruan duten hiru gutunazalak mahaigainean daudela ebaluaketa hasi aurretik. (Aurkezteko modu honekin, haurrak zera pentsatzea nahi da, aztertzaileak ez dakiela haurrak aukeratu duen gutunazal barruan zein istorio dagoen. Hartara, irudiak aurkezterakoan sor daitekeen ezagutza partekatuaren efektua kontrolatzea lortu nahi da).
- Ebaluaketa, istoriaren protokoloetako jarraibidean adierazi bezala egin behar da. Jarraitu, mesedez, hitz egiteko bultzagarrietarako gomendioak (ikus bultzagarriak beheago).
- Irudien aurkezpenari buruzko informazio gehigarria: esperimentuak irauten duen bitartean garrantzizkoa da zu haurraren parean eserita jartzea, haurrak irudiei eusten dienean (berak) ikusteko moduan eustea, berari begira eta irudiak zuri bizkar emanez, zuk ez ikusteko moduan. Haurrak irudiak ateratzen dituenean, esan irudiak zabaldu behar dituela eta istorio osoari erreparatzeko, lehenengo iruditik hasita, ondorengoa esanez: *“irudiak ikusi, baina niri erakutsi gabe. Istorioa ZUK bakarrik ikusi behar duzu eta.”* (haurrak irudiei eusteko eta irudiak desplegatze arazoak dituela irudituz gero, eutsi zerorrek irudiei, irudiak haurrari begira jarrita, zuk haien atze alde).
- Haurra ipuina kontatzeko prest dagoenean, lagundu iezaiozu irudiak berriro 3 ataletan tolesten. Toleste prozesua irudiei begiratu gabe bidera dezakezu, haurra oraindik irudiei eusten dagoen bitartean. Azaldu iezaiozu haurrari istorioa kontatzen hasi behar duela lehenengo bi irudiei begiratu. 1 eta 2 irudiak ikusten bukatutakoan hurrengo bi irudien zabaltzea bideratu (1-4 irudiak zabaldua egongo dira orain). Haurrak kontatzen amaitutakoan, bidera ezazu hurrengo bi irudien zabaltzea, hartara, istorio osoa zabaldua egoteko moduan.
- Haurrak istorioa kontatzen/birkontatzen amaitutakoan, aurkeztu itzazu ulermen-galderak, ondorengoa esanez: *“Orain ipuinari buruzko galdera batzuk egingo dizkizut”*. Ulermen-galderak egiten dituzun bitartean eutsi irudi-segidei zabalik, irudi guztiak haurrarentzat eta ikertzailearentzat mahai gainean ikusgarri egon daitezten.
- Saioa amaitutakoan, kontaketa(k) transkribatu eta puntuatu haurraren ekoizpena eta ulermena puntuazio-orrietan.
- **Gogoratu:** Puntuazio-orrietako aukeren zerrenda ez da osoa. Makroegituraren osagai bat (asmoa, saiakera, emaitza, barne-egoera terminoa) identifikatuztat ematen da hura adierazteko moduko hitzak daudela irudituz gero. Erabil ezazu eskuliburua, gida modura.

Bultzagarriak

1. Ez ezazu istorioa haurraren partez hasi. Anima ezazu haurra ipuina kontatzera (irudia seinalatuaz) *“Konta idazu istorioa”* esanez.
2. Hitz egiteko bultzagarriak gutxienez 10 s(egundo) itxaron ondoren eman behar dira, eta haurrari ezer ez esateko itxura hartutakoan bakarrik. Orduan bakarrik bultzatu behar da haurra, aurrena *“bale...”, “ongi...”, “zure txanda...”* esanez. Mesedez, OSO kontuz ibili bultzagarriekin, aztertutakotaldeen arteko desberdintasunik, ikertzailearen-efektua delakoa, alegia, ez sortzeko. Itxaron 10 s inguru arte: haurrak isilik segitzen badu, bultzatu, esanez: *“konta idazu zer gertatzen den”*. Ipuinaren erdian haurra isiltzen bada, anima ezazu jarraituzera, esanez; *“besterik?”, “segí”, “konta idazu gehiago”, “goazen ikustera zer gehiago gertatzen den ipuinean”*.

3. Ez dio inportik haurrak, kontaktetan zehar, pertsonaiak nola adierazten dituen; ez zuzendu esaten duena. Haurrak gertaera, protagonista, eta abar adierazteko hitza aurkitzen ez badu, eta trabatuta dagoela antzemanaz gero edo laguntza eskatzen badu, animatu, esanez “*zuk jarri, nahi duzun izena*” “*zuk nola deituko zenioke horri?*”.
4. Ez egin horrelako galderak (haurraren kontaktetan etenik edo eraginik ez sortzeko, esaldi osatu gabeak edota erreferentzia deiktikoak saihesteko asmoarekin):
 - a) “zertan ari da hemen?”, “nor dabil korrika?”
 - b) “*zer da hau?*”, “*zer/nor ikusten duzu irudian/marrazkian?*”
5. Bere bizipenen istorioa kontatzen hasten bada, adibidez, “*horrelako txori bat ikusi dut goizean*” edo “*amarekin erosketak egitera joango naiz eskolatik ateratakoan ...*”, eman denbora piskabat haurrari bizipena kontatzeko eta ondoren eska iezaiozu goxo-goxo irudietako ipuina kontatzeko (Azterketatik at utzi kontaktetarako garrantzirik ez duen atal hori).
6. Zure aurreko eskarmentuak edota ingurune kulturalak hala eskatuta, litekeena da haurra animatzeko hitzen bat edo beste esan nahi izatea, adibidez “*ongilondo*”, “*bale*”, irudi pare bakoitzaren ondoren (eta hurrengo pare a zabaldu aurretik). (Hori lagungarria izan daiteke transkribatzaile/kodetzailearentzat ere, esaldiak zein irudi-pareri dagozkion errazago jakiteko). Baina hobe halakorik ez egitea, kontaketa eten edo haurrak haria galtzea eragin dezakeela iruditzen bazaizu.

Nola (ez) alderatu istorioen emaitzak

- Haur elebidun bat bi hizkuntzatan testatzerakoan ez erabili Katuarena edota Txakurrarena hizkuntza baterako eta Txorikumeena edota Ahuntzumeena besterako.
- Saihestu Katuarena edota Txakurrarena momentu batean erabiltzea ere, hurrena beste momentu bateko Txorikumeena edota Ahuntzumeenarekin alderatzeko.
- Zergatik? MAINeko ipuinak ezin direlako nolnahi alderatu. Azkenaldiko emaitzek erakutsi dutenez, zenbait ñabardura daude lau istorioak desberdin izatea eragiten dutenak, batez ere ulermen galderei dagokienean. Txorikumeena eta Ahuntzumeena paretsuak dira; Katuarena eta Txakurrarena ere nahikoa parekoak dira baina desberdinak dira zenbait ezaugarritan Txorikumeen eta Ahuntzumeen ipuinekin alderatuta, adibidez, traman, pertsonai-kopuruan eta ulermen-galdera batzuetan. Horregatik, ziurta ezazu alderatzen duzuna ez direla sagarrak eta udareak.
- Kontu izan haur taldeak MAINekin testatzerakoan eta egoki orekatutako prozedurak erabili, aukeratutako istorioaren eragina edota modalitatearen (birkontaketa, eredu-ipuina, kontaketa) ahalik eta txikiena izan dadin.

Ikerketarako prozedurak orekatzen

Ipuinak orekatutako hurrenkera aurkeztu behar dira, hizkuntzari dagokionean, eta baita istorio-motari dagokionean ere (Katu/Txakurrarenak (nagusiki) eredu-ipuina/ birkontaketa eta Txorikume/ Ahuntzumeenak (nagusiki) kontaketa). Hurrengo prozedura erabili, orekatua izan dadin (hizkuntza bakarrean testatzez gero, erabil bedi ausazko prozedura haurrentzat: 1, 2, 5 eta 6 zenbakiak edo 3, 4, 7 eta 8):

Haur zenbakia	Hizkuntza	Eredu-ipuina/ Birkontaketa	Kontaketa	Hizkuntza	Eredu-ipuina/ Birkontaketa	Kontaketa
1	H1	Katua	Txorikumeak	H2	Txakurra	Ahuntzumeak
2	H1	Katua	Ahuntzumeak	H2	Txakurra	Txorikumeak
3	H2	Katua	Ahuntzumeak	H1	Txakurra	Txorikumeak
4	H2	Katua	Txorikumeak	H1	Txakurra	Ahuntzumeak
5	H1	Txakurra	Txorikumeak	H2	Katua	Ahuntzumeak
6	H1	Txakurra	Ahuntzumeak	H2	Katua	Txorikumeak
7	H2	Txakurra	Ahuntzumeak	H1	Katua	Txorikumeak
8	H2	Txakurra	Txorikumeak	H1	Katua	Ahuntzumeak

Kontuan izan istorio eta kontrastetako modu desberdinen emaitzak ezin direla zuzenean konparatu (ikus gorago).

Protokoloa. Katuaren Ipuina.

Kontaketa / Birkontaketa / Eredupuina

Hauraren izen-abizenak: _____

Jaiotze data: _____

Testatze data: _____

Adina, testaren egunean (urte; hilabeteak): _____

Sexua: _____

Aztertzailearen izen-abizenak: _____

H₂-rekin hasitako adina (urte; hilabeteak): _____

Haur-eskolan hasitako data: _____

Haur-eskolaren izena: _____

Ziurta ezazu gutunazal guztiak mahai gainean daudela testa hasterako. Presta ezazu saioa grabatzeko hots grabagailua. Grabazioa beroketa hasi aurretik abiarazi.

Beroketa

Galdetu, adibidez: *nola izena du zure lagun onenak? Telebistan zer gustatzen zaizu ikustea? Gustatzen al zaizu ipuinak kontatzea? Gustatzen al zaizu ipuinak entzutea?*

Jarraibidea

Kontaketarako Jarraibidea

Hauraren parean eseri, berari begira. Esan iezaiozu: *Begira, hemen 3 gutunazal daude. Gutunazal bakoitzean ipuin bat dago. Bat aukeratu eta kontatu egin behar didazu. Irudiak zabaldu, sekuentzia osoa haurrak (berak bakarrik) ikusteko moduan. Lehenengo, istorio osoa ikusi, eta prest zaudenean, esan. Prest?*

Lehen bi irudiak zabaldu. Esan haurrari: *ipuina zuk kontatzea nahi dut. Irudiak ikusi, eta saiatu ipuina ahalik eta ondoan kontatzen. Haurra hasi nahi ezean dabilela irudituz gero, ondorengo bultzagarria erabil daiteke: “Kontaidazu ipuina” (irudia seinalatuz). Haurrak lehen 2 irudiak kontatzen amaitutakoan, hurrengo biak zabaldu (1-4 irudiak ikusteko moduan). Prozesua berriro egin, ipuina bukatu arte. Ipuinaren erdian haurra isilik geldituz gero, ondorengo bultzagarriak erabil daitezke: “*besterik?*”, “*segi*”, “*konta idazu gehiago*”, “*goazen ikustera zer gehiago gertatzen den ipuinean*”. Haurra isiltzen bada, kontatzen bukatu duela adierazi gabe, orduan esan: “*Bukatzen duzunean esan e?*”.*

Haurrak bukatzen duenean, zoriondu, eta, ondoren, ulermen-galderak egin.

Birkontaketarako Jarraibidea

Hauraren parean eseri, berari begira. Esan iezaiozu: *Begira, hemen 3 gutunazal daude. Gutunazal bakoitzean ipuin bat dago. Bat aukeratu eta kontatu egin behar didazu. Irudiak zabaldu, sekuentzia osoa haurrak (berak bakarrik) ikusteko moduan. Lehenengo, istorio osoa ikusi ondo. Prest? Aurrena ipuina nik kontatuko dizut eta gero zuk niri kontatu.*

1 eta 2 irudiak zabaldu. *Ipuina hemen hasten da (1 irudia seinalatuz): Behin batean katu jostalari batek tximeleta hori bat ikusi zuen sasi/zuhaixka baten gainean. Salto egin zuen, tximeleta harrapatu nahi zuelako. Bitartean, mutiko bat pozik zetorren arrantza egitetik,*

balde/pertz bat eta baloi bat eskuetan. Katua tximeletaren atzetik zebilen eta hari begira jarri zen mutikoa.

3 eta 4 irudiak zabaldu (1etik 4ra bitarteko irudiak bistan egongo dira hala). *Tximeletak azkar-azkar alde egin zuen hegan, eta katua sasitara/zuhaixkara erori zen. Mina hartu zuen eta oso haserre zegoen. Mutikoak hartu zuen sustoarekin baloiak ihes egin zion eskutik. Baloia pirika uretara zihoala ikusi zuenean negarrez esan zuen: "Oh ez!, hara nire baloia!" Triste zegoen eta baloia berreskuratatu nahi zuen. Bitartean, katua mutikoaren balde/pertzaz konturatu zen eta pentsatu zuen: "arrain bat harrapatuko dut".*

5 eta 6 irudiak zabaldu (1etik 6rako irudi guztiak ikusteko moduan egongo dira hala). *Tarte horretan mutikoa kanaberarekin baloiari uretatik tiraka hasi zen. Ez zen konturatu katuak arraina harrapatu ziola. Bukaeran, katua gustora zegoen halako arrain goxoa jaten eta mutikoa pozik zegoen bere baloia berreskuratuta.*

Eta hemen amaitzen da ipuina.

Irudiak zabaldu, lehenengo 2ak haurrak bakarrik ikusteko moduan. Esan haurrari: *orain ipuina zuk kontatzea nahi dut. Irudiak ikusi, eta saiatu ipuina ahalik eta ondoan kontatzen.* Haurra hasi nahi ezean dabilela irudituz gero, ondorengo bultzagarria erabil daiteke: *"Kontaidazu ipuina"* (irudia seinalatuz). Haurrak lehen 2 irudiak kontatzen amaitutakoan, hurrengo biak zabaldu (1-4 irudiak ikusteko moduan). Prozesua berriro egin, ipuina bukatu arte. Ipuinaren erdian haurra isilik geldituz gero, ondorengo bultzagarriak erabil daitezke: *"besterik?", "segi", "konta idazu gehiago", "goazen ikustera zer gehiago gertatzen den ipuinean"*. Haurra isiltzen bada, kontatzen bukatu duela adierazi gabe, orduan esan: *"Bukatzen duzunean esan e?"*.

Haurrak bukatzen duenean, zoriondu, eta, ondoren, ulermen-galderak egin.

Eredu-ipuinerako Jarraibidea

Haurraren parean eseri, berari begira. Esan iezaiozu: *Begira, hemen 3 gutunazal daude. Gutunazal bakoitzean ipuin bat dago. Bat aukeratu eta kontatu egin behar didazu.* Irudiak zabaldu, sekuentzia osoa haurrak (berak bakarrik) ikusteko moduan. *Lehenengo, istorio osoa ikusi, eta prest zaudenean, esan. Prest? Nik ipuina kontatuko dizut eta gero galdera batzuk egingo dizkizut.*

1 eta 2 irudiak zabaldu. *Ipuina hemen hasten da (1 irudia seinalatuz): Behin batean katu jostalari batek tximeleta hori bat ikusi zuen sasi/zuhaixka baten gainean. Salto egin zuen, tximeleta harrapatu nahi zuelako. Bitartean, mutiko bat pozik zetorren arrantza egitetik, balde/pertz bat eta baloi bat eskuetan. Katua tximeletaren atzetik zebilen eta hari begira jarri zen mutikoa.*

3 eta 4 irudiak zabaldu (1etik 4ra bitarteko irudiak bistan egongo dira hala). *Tximeletak azkar-azkar alde egin zuen hegan, eta katua sasitara/zuhaixkara erori zen. Mina hartu zuen eta oso haserre zegoen. Mutikoak hartu zuen sustoarekin baloiak ihes egin zion eskutik. Baloia pirika uretara zihoala ikusi zuenean negarrez esan zuen: "Oh ez!, hara nire baloia!" Triste zegoen eta baloia berreskuratatu nahi zuen. Bitartean, katua mutikoaren balde/pertzaz konturatu zen eta pentsatu zuen: "arrain bat harrapatuko dut".*

5 eta 6 irudiak zabaldu (1etik 6rako irudi guztiak ikusteko moduan egongo dira hala). *Tarte horretan mutikoa kanaberarekin baloiari uretatik tiraka hasi zen. Ez zen konturatu katuak arraina harrapatu ziola. Bukaeran, katua gustora zegoen halako arrain goxoa jaten eta mutikoa pozik zegoen bere baloia berreskuratuta.*

Eta hemen amaitzen da ipuina.

Eta hemen amaitzen da ipuina esan ondoren, hasi ulermen-galderak egiten.

Puntuazio-orria. Katuaren Ipuina.

I Atala: Ekoizpena

A. Ipuinaren Egitura; B. Egituraren Konplexutasuna; C. Barne-egoera terminoak (BET)

A. Ipuinaren Egitura

		Erantzun zuzenen adibideak¹	Puntuak
A1.	Hasiera	Erreferentziako denbora edota tokia, adz. behin batean/ bazen behin/ behin omen zen... Laku batean / laku baten ondoan/ ibai baten ondoan/ ur ondoan/ itsas-ertzean / belaze batean....	0 1 2 ²
<i>1. Gertaera: Katua (Gertaerako pertsonaiak: katua eta tximeleta)</i>			
A2.	BET abierako gertaera bezala	Katua jostalaria zen/ kurioa zen/ jakinmina zuen Katuak tximeleta ikusi zuen	0 1
A3.	Helburua	Katuak tximeleta harrapatu / lortu/ ehizatu nahi zuen/ tximeletarekin jolastu nahi zuen ADITZA (harrapa-, har-, lor-, ehiza-, josta-)tzeko	0 1
A4.	Saiakera	Katuak aurrera/ gora salto egin zuen Katuak harrapatu zuen/ ehizean/ ehizatzen hasi zen Katua ADITZA (harrapa-, har-, lor-, ehiza-, josta-) -tzen saiatu / hasi zen	0 1
A5.	Emaitza	Katua(k) sasitara/ zuhaixka gainera erori zen/ ez zuen tximeleta harrapatu/ ez zen nahikoa azkar mugitu Tximeleta(k) alde egin zuen/ hegan joan zen/ azkarregia zen	0 1
A6.	BET erreakzio bezala	Katua(k) haserre/ disgustatuta/ zaurituta zegoen/ mina hartu zuen Tximeleta pozik/ kontent zegoen	0 1
<i>2. Gertaera: Mutikoa (Gertaerako pertsonaia: mutikoa)</i>			
A7.	BET abierako gertaera bezala	Mutikoa triste/ penatuta/ baloiarekin kezkatuta Mutikoak baloia uretan ikusi zuen	0 1
A8.	Helburua	Mutikoak baloia hartzea/ berreskuratzea erabaki /nahi zuen ADITZA (lortu)-tzeko	0 1
A9.	Saiakera	Mutikoa baloia uretatik ateratzen hasi/aritu zen /tiraka hasizen	0 1
A10.	Emaitza	Mutikoak baloia lortu/ berreskuratu / atzera hartu zuen Baloia onik atera zen	0 1
A11.	BET erreakzio bezala	Mutikoa pozik/ kontentu/ alai zegoen/ lasaitu egin zen (baloia berreskuratuta)	0 1
<i>3 Gertaera: Katua (Gertaerako pertsonaia: katua)</i>			

¹ Zalantza izanez geroz, edo haurren erantzuna puntuazio-orri honetan agertzen ez bada, begiratu eskuliburuan.

² Zero puntu, erantzunik ez badago; puntu 1, erantzun zuzenagatik, 2 puntu, biak, denbora eta tokia adieraziz geroz.

A12.	BET abierako gertaera bezala	Katua gosetuta/ arrainarekin interesatuta zegoen/ arraina gustatzen zitzaion Katua(k) arraina ikusi zuen/ arrainaz konturatu zen	0 1
A13.	Helburua	Katuak arraina ohostu/ebatsi/ harrapatu/ lortzea erabaki /nahi zuen ADITZA (jan, lortu)-tzeko	0 1
A14.	Saiakera	Katua arraina(ri) heltzera/ harrapatzera / hartzera doa/ ebasten/ aritu / ibili / saiatu zen Katuak arraina (pertz/baldetik) atera/ heldu/ tira / arraia ikutu Katua saiatu/aritu/ahalengidu + ADITZA (lortu, hartu)-tzen	0 1
A15.	Emaitza	Katuak arraina jan/lortu zuen	0 1
A16.	BET erreakzio bezala	Katua haseta zegoen/ pozik/ alai/ gustora/ zegoen / ez zegoen triste jada /haserrea joan zitzaion/ goserik gabe	0 1
A17.	Puntuak guztira 17tik:		

B. Egitura konplexutasuna

SE sekuentzia kopurua	H sekuentzia soil kopurua (S eta E gabe)	HS / HE sekuentzia kopurua	HSE sekuentzia kopurua
B1.	B2.	B3.	B4.

C. Barne-egoera adierazteko Terminoak (BET)

C1.	<p>BET adibide kopuru totalak. BETen artean daude:</p> <p>Pertzepzio-terminoak adz.: <i>ikusi, entzun, sentitu, aditu, usaindu...</i></p> <p>Egoera psikologiko-terminoak adz.: <i>egarrituta, goseak, nekatuta, minduta ...</i></p> <p>Konszientzia-terminoak adz.: <i>bizirik, esna(tuta), adi, argi egon...</i></p> <p>Emozio-terminoak adz.: <i>triste, pozik, haserre, kezkatuta, ikaratuta, etsita, beldurtuta, harro, alai, seguru (sentituz), lasai, harrituta...</i></p> <p>Pentsatu-aditzak adz.: <i>nahi, pentsatu, uste, jakin, ahaztu, erabaki, sinestu, plana izan/ egin ...</i></p> <p>Esan-aditzak adz.: <i>esan, deitu, oihu egin, garrasi egin, buila atera, hots egin...</i></p>
-----	---

II Atala: Ulermena

		Erantzun zuzenen adibideak	Erantzun okerren adibideak	Puntuak
0	Gustatu al zaizu ipuina?	Beroketa-galdera, puntuatzen ez duena		
D1.	zergatik egiten du salto, katuak? (1-2 irudiak seinalatu) (1. Gertaera: Helburua)	Tximeleta lortu/ harrapatu/ ehizatu nahi du/ tximeletarekin jolastu/ jostatu nahi du Tximeleta ADITZA (lortu, harrapatu)-tzeko	Alde egiten du/ korri egiten du/ salto egin nahi du Katuak beti ibiltzen dira saltoka/ korrika	0 1
D2.	Nola sentitzen da katua? (3. irudia seinalatu) (BET erreakzio bezala)	Haserre/ gaizki/ pena hartuta/ minez/ zaurituta/ ez ondo/ deseroso	Ongi / pozik	0 1
D3.	(D3 galdetu, kasu honetan bakarrik: haurrak D2 ondo erantzuten badu, baina azalpenik eman gabe. D2n ondo erantzun badu, puntu bat eman D3n eta segi D4ra.) Zer uste duzu, zergatik ote dago katua haserre/ mina hartuta/ zaurituta...? ³	Tximeleta harrapatu ezin zuelako/ sasitara erori zelako Mina hartzen da sasitara / arantzetara eroriz gero(z) Tximeletak alde egiten du/ alde egin zuen	Erantzun desegokia	0 1
D4.	Zergatik sartu zuen mutikoak kanabera uretan? (5. irudia seinalatu) (Gertaera 2: Helburua)	Baloia berreskuratu / hartu nahi du Baloia ADITZA (lortu, hartu, berriro izan)- TEKO/ nahi du	Uretan jostatzeko	0 1
D5.	Zer moduz, nola sentitzen da mutikoa? (6. irudia seinalatu) (BET erreakzio bezala)	Ondo/ ederkil/ pozik/ alai/ gustora	Gaizki/ haserre/ amorratuta/ triste	0 1
D6.	(D6 kasu honetan bakarrik galdetu: haurrak D5 ondo erantzun badu, baina azalpenik eman gabe. D5 ondo erantzun badu, puntu bat jarri D6n eta segi D7ra.) Zergatik uste duzu mutikoa ondo/ pozik/ alai/ gustura ... dagoela? ⁴	Baloia berreskuratu du Baloia ADITZA (lortu, hartu)-tzeko gai izan da	Irrifarrez dago/ hala ematen du / bestelako erantzun desegokiren bat	0 1
D7.	Zergatik heltzen dio katuak arrainari? (5. irudia seinalatu) (Gertaera 3: Helburua)	Arraia jatea / edukitzea erabaki / nahi du Mutikoa begira ez dagoenean aprobetxatzen du ez zuen tximeleta lortu / harrapatu	Arrainarekin jostatu nahi du	0 1

³ Haurrak D2ren erantzunean esandako BET bera erabili.

⁴ Haurrak D5en erantzunean esandako BET bera erabili.

		Katuak arraia jaten dute (esanahi generikoa) Arraina goxoa izaten da		
D8.	Imaginatuz mutikoak katuak ikusten duela. Nola sentituko da mutikoa? (6. irudia seinatu) (BET erreakzio bezala)	Gaizki / haserre/ triste/ amorratuta/ ez ondo	Ondo/ ongi/ ederki/ pozik/ alai/ gustora	0 1
D9.	<i>(D9 kasu honetan bakarrik galdetu: haurrak D8 ondo erantzun badu, baina azalpenik eman gabe. D8 ondo erantzun badu, puntu bat jarri D9n eta segi D10era.)</i> Zergatik uste duzu mutikoa gaizki / haserre/ amorratuta eta abar sentitzen dela? ⁵	Katuak bere arraina jan du / jaten ari da/ harrapatu du/ hartu du Mutikoak arraina berak jan / eduki nahi zuen Arraina mutikoarena zen	Kanabera lurrean zegoen, edo bestelako erantzun desegokiren bat	0 1
D10.	Mutikoa katuaren laguna izango al da? Zergatik?	Ez. Eman arrazoi bat, gutxienez (katuak arraina jan/ ohostu/ lapurtu) edo bestelako erantzun egokiren bat	Bai / Ez dakit/ beste erantzun desegokiren bat	0 1
D11.	Puntuak guztira 10etik:			

⁵ Haurrak D8ren erantzunean esandako BET bera erabili.

Protokoloa. Txakurraren Ipuina.

Kontaketa / Birkontaketa / Eredupuina

Haurraren izen-abizenak: _____

Jaiotze data: _____

Testatze data: _____

Adina, testaren egunean (urte; hilabeteak): _____

Sexua: _____

Aztertzailearen izen-abizenak: _____

H₂-rekin hasitako adina (urte; hilabeteak): _____

Haur-eskolan hasitako data: _____

Haur-eskolaren izena: _____

Ziurta ezazu gutunazal guztiak mahai gainean daudela testa hasterako. Presta ezazu saioa grabatzeko hots grabagailua. Grabazioa beroketa hasi aurretik abiarazi.

Beroketa

Galdetu, adibidez: *nola izena du zure lagun onenak? Telebistan zer gustatzen zaizu ikustea? Gustatzen al zaizu ipuinak kontatzea? Gustatzen al zaizu ipuinak entzutea?*

Jarraibidea

Kontaketarako Jarraibidea

Haurraren parean eseri, berari begira. Esan iezaiozu: *Begira, hemen 3 gutunazal daude. Gutunazal bakoitzean ipuin bat dago. Bat aukeratu eta kontatu egin behar didazu. Irudiak zabaldu, sekuentzia osoa haurrak (berak bakarrik) ikusteko moduan. Lehenengo, istorio osoa ikusi, eta prest zaudenean, esan. Prest?*

Lehen bi irudiak zabaldu. Esan haurrari: *ipuina zuk kontatzea nahi dut. Irudiak ikusi, eta saiatu ipuina ahalik eta ondoan kontatzen. Haurra hasi nahi ezean dabilela irudituz gero, ondorengo bultzagarria erabil daiteke: “Kontaidazu ipuina” (irudia seinalatuz). Haurrak lehen 2 irudiak kontatzen amaitutakoan hurrengo biak zabaldu (1-4 irudiak ikusteko moduan). Prozesua berriro egin, ipuina bukatu arte. Ipuinaren erdian haurra isilik geldituz gero, ondorengo bultzagarriak erabil daitezke: “besterik?”, “segi”, “konta idazu gehiago”, “goazen ikustera zer gehiago gertatzen den ipuinean”. Haurra isiltzen bada, kontatzen bukatu duela adierazi gabe, orduan esan: “Bukatzen duzunean esan e?”.*

Haurrak bukatzen duenean, zoriondu, eta, ondoren, ulermen-galderak egin.

Birkontaketarako Jarraibidea

Haurraren parean eseri, berari begira. Esan iezaiozu: *Begira, hemen 3 gutunazal daude. Gutunazal bakoitzean ipuin bat dago. Bat aukeratu eta kontatu egin behar didazu. Irudiak zabaldu, sekuentzia osoa haurrak (berak bakarrik) ikusteko moduan. Lehenengo, istorio osoa ikusi ondo. Prest? Aurrena ipuina nik kontatuko dizut eta gero zuk niri kontatu.*

1 eta 2 irudiak zabaldu. *Ipuina hemen hasten da (1 irudia seinalatuz): Behin batean txakur jostalari batek sagu gris bat ikusi zuen zuhaitz baten ondoan eserita. Salto egin zuen, sagua harrapatu nahi zuelako. Bitartean, mutiko bat pozik zetorren erosketak egitetik,*

poltsa bat eta puxika/globo bat eskuetan. Txakurra saguaren atzetik zebilen eta hari begira jarri zen mutikoa.

3 eta 4 irudiak zabaldu (1etik 4ra bitarteko irudiak ikusteko moduan egongo dira hala). Xaguak azkar-azkar alde egin zuen korrika eta txakurrak zuhaitzaren kontra jo zuen. Mina hartu zuen eta oso haserre zegoen. Mutikoak hartu zuen sustoarekin puxikak/globoak ihes egin zion eskutik. Puxika/globoak zuhaitz gainera zihoala ikusitakoan esan zuen, negarrez, "Oh ez!, hara nire puxika/globo!". Triste zegoen eta bere puxika/globoak berreskuratu nahi zuen. Bitartean, txakurra mutikoaren poltsaz konturatu zen eta pentsatu zuen: "saltxitxa bat harrapatuko dut".

5 eta 6 irudiak zabaldu (1etik 6rako irudi guztiak ikusteko moduan egongo dira hala). Tarte horretan, mutikoa puxika/globoari tiraka hasi zen, zuhaitzetik jaisteko. Ez zen konturatu txakurrak saltxitxa harrapatu ziola. Bukaeran, txakurra gustora zegoen halako saltxitxa goxoa jaten eta mutikoa pozik zegoen baloia berreskuratuta.

Eta hemen amaitzen da ipuina.

Irudiak zabaldu, lehenengo 2ak haurrak bakarrik ikusteko moduan. Esan haurrari: *orain ipuina zuk kontatzea nahi dut. Irudiak ikusi, eta saiatu ipuina ahalik eta ondoan kontatzen.* Haurra hasi nahi ezean dabilela irudituz gero, ondorengo bultzagarria erabil daiteke: "Kontaidazu ipuina" (irudia seinalatuz). Haurrak lehen 2 irudiak kontatzen amaitutakoan hurrengo biak zabaldu (1-4 irudiak ikusteko moduan). Prozesua berriro egin, ipuina bukatu arte. Ipuinaren erdian haurra isilik geldituz gero, ondorengo bultzagarriak erabil daitezke: "besterik?", "segi", "konta idazu gehiago", "goazen ikustera zer gehiago gertatzen den ipuinean". Haurra isiltzen bada, kontatzen bukatu duela adierazi gabe, orduan esan: "Bukatzen duzunean esan e?".

Haurrak bukatzen duenean, zoriondu, eta, ondoren, ulermen-galderak egin.

Eredu-ipuinerako Jarraibidea

Haurraren parean eseri, berari begira. Esan iezaiozu: *Begira, hemen 3 gutunazal daude. Gutunazal bakoitzean ipuin bat dago. Bat aukeratu eta kontatu egin behar didazu.* Irudiak zabaldu, sekuentzia osoa haurrak (berak bakarrik) ikusteko moduan. *Lehenengo, istorio osoa ikusi, eta prest zaudenean, esan. Prest? Nik ipuina kontatuko dizut eta gero galdera batzuk egingo dizkizut.*

1 eta 2 irudiak zabaldu. *Ipuina hemen hasten da (1 irudia seinalatuz): Behin batean txakur jostalari batek sagu gris bat ikusi zuen zuhaitz baten ondoan eserita. Salto egin zuen, sagua harrapatu nahi zuelako. Bitartean, mutiko bat pozik zetorren erosketak egitetik, poltsa bat eta puxika/globo bat eskuetan. Txakurra saguaren atzetik zebilen eta hari begira jarri zen mutikoa.*

3 eta 4 irudiak zabaldu (1etik 4ra bitarteko irudiak ikusteko moduan egongo dira hala). Saguak azkar-azkar alde egin zuen korrika eta txakurrak zuhaitzaren kontra jo zuen. Mina hartu zuen eta oso haserre zegoen. Mutikoak hartu zuen sustoarekin puxika/globoak ihes egin zion eskutik. Puxika/globoak zuhaitz gainera zihoala ikusitakoan esan zuen, negarrez, "Oh ez!, hara nire puxika/globo!". Triste zegoen eta bere puxika/globoak berreskuratu nahi zuen. Bitartean, txakurra mutikoaren poltsaz konturatu zen eta pentsatu zuen: "saltxitxa bat harrapatuko dut".

5 eta 6 irudiak zabaldu (1etik 6rako irudi guztiak ikusteko moduan egongo dira hala). Tarte horretan, mutikoa puxika/globoari tiraka hasi zen, zuhaitzetik jaisteko. Ez zen konturatu txakurrak saltxitxa harrapatu ziola. Bukaeran, txakurra gustora zegoen halako saltxitxa goxoa jaten eta mutikoa pozik zegoen baloia berreskuratuta.

Eta hala amaitzen da ipuina.

Eta hala amaitzen da ipuina esan ondoren, hasi ulermen galderak egiten.

Puntuazio-orria. Txakurraren Ipuina.

I Atala: Ekoizpena

A. Ipuinaren Egitura; B. Egitura konplexutasuna; C. Barne Egoera Terminoak (BET)

A. Ipuinaren Egitura

		Erantzun zuzenen adibideak⁶	Puntuak
A1.	Hasiera	Erreferentziako denbora edota tokia, adz. behin batean/ baten behin/ behin omen zen... Baso baten/ parke baten/ belaze batean/ zuhaitz baten ondoan/ zuhaitz baten azpian/ bide ertzean...	0 1 2 ⁷
<i>1. Gertaera: Txakurra (Gertaerako pertsonaiak: txakurra eta xagua)</i>			
A2.	BET abierako gertaera bezala	Txakurra jostalaria zen/ txakurrak jakinmina zuen Txakurrak sagu bat ikusi zuen	0 1
A3.	Helburua	Txakurrak sagua harrapatu/ lortu/ sagua ren atzetik ibili nahi zuen / saguarekin jostatu nahi zuen ADITZA (harrapatu, lortu, jolastu)-tzeko	0 1
A4.	Saiakera	Txakurrak salto egin zuen Txakurra(k) harrapatu / harrapatzen hasi Txakurra saiatu zen ADITZA (harrapatu, lortu, heldu, ehizatu...)-tzen	0 1
A5.	Emitza	Txakurra(k) kolpea hartu zuen buruan / zuhaitzaren kontra jo zuen/ zuhaitzarekin txokatu zen/ ez zuen sagua lortu/ ez zen nahikoa azkarra izan Sagua(k) ihes egin zuen/ zuhaitzaren atzeko aldera joan zen azkarregia zen	0 1
A6.	BET erreakzio bezala	Txakurra(k) pena hartu zuen/ haserretu egin zen/ mina hartu zuen Sagua pozik / alai/ lasaituta zegoen	0 1
<i>2. Gertaera: Mutikoa (Gertaerako pertsonaia: Mutikoa)</i>			
A7.	BET abierako gertaera bezala	Mutikoa triste zegoen/ bere puxika/ globoa rekin kezkatuta Mutikoak puxika/ globoa zuhaitz (gain)ean ikusi zuen	0 1
A8.	Helburua	Mutikoa(k) puxika/ globoa berreskuratzea erabaki/ nahi zuen ADITZA (lortu, berreskuratu)-tzeko	0 1
A9.	Saiakera	Mutikoa puxika/ globoa zuhaitz gainetik jaisteko puxika/ globoari tiraka aritu/ saiatu zen Mutikoak puxika/ globoa hartzeko salto egin zuen/ besoa luzatu zuen/ (baloia) iritsi zuen/ (zuhaitzera) igo zen	0 1
A10.	Emitza	Mutikoak puxika/ globoa berreskuratu zuen Puxika/ Globoa leku seguruan zegoen	0 1

⁶ Zalantza izanez geroz, edo haurraren erantzuna puntuazio-orri honetan agertzen ez bada, begiratu eskuliburuan.

⁷ Zero puntu, erantzunik ez badago; puntu 1, erantzun zuzenagatik, 2 puntu, biak, denbora eta tokia adieraziz geroz.

A11.	BET erreakzio bezala	Mutikoa pozik/ alai/ gustura/ lasaituta (Puxika/ Globoa lortuta / berreskuratuta)	0	1
<i>Gertaera 3: Txakurra (Gertaerako pertsonaia: Txakurra)</i>				
A12.	BET abierako gertaera bezala	Txakurra(k) saltxitxak ikusi/ antzeman zituen (poltsan)/ saltxitxekin konturatu zen Txakurra(ri) gosetuta zegoen / saltxitxekin interesatuta zegoen / saltxitxazalea zen/ saltxitxak gustatzen zitzaizkion	0	1
A13.	Helburua	Txakurrak saltxitak lortu/ eskuratu/ jan/ eduki/ ostu/ lapurtu nahi zituen/ lortzea erabaki zuen ADITZA (jan, lortu)-tzeko	0	1
A14.	Saiakera	Txakurra saltxitxei heltzen/ tiraka/ saltxitxak hartzen/ harrapatzen/ ohostutzen/ ebasten ari zen Txakurrak saltxitxak (poltsatik ateratzeko) tiraka/ saltxitxei heldu / saltxitxak poltsatik atera zituen Txakurra ADITZA (lortu, hartu)-tzen saiatu zen	0	1
A15.	Eraitza	Txakurrak saltxitxak jan / lortu zituen	0	1
A16.	BET erreakzio bezala	Txakurra gustura/ pozik/ alai/ zegoen / txakurrari gosea kendu zitzaion	0	1
A17.	Puntuak guztira 17tik:			

B. Egitura konplexutasuna

SE sekuentzia kopurua	H sekuentzia soil kopurua (S eta E gabe)	HS / HE sekuentzia kopurua	HSE sekuentzia kopurua
B1.	B2.	B3.	B4.

C. Barne Egoera adierazteko Terminoak (BET)

C1.	<p>BET adibide kopuru totalak. BETen artean daude:</p> <p>Pertzepzio-terminoak adz.: <i>ikusi, entzun, sentitu, aditu, usaindu...</i></p> <p>Egoera psikologiko-terminoak adz.: <i>egarrituta, goseak, nekatuta, minduta ...</i></p> <p>Konszientzia-terminoak adz.: <i>bizirik, esna(tuta), adi, argi egon...</i></p> <p>Emozio-terminoak adz.: <i>triste, pozik, haserre, kezkatuta, ikaratuta, etsita, beldurtuta, harro, alai, seguru (sentituz), lasai, harrituta...</i></p> <p>Pentsatu-aditzak adz.: <i>nahi, pentsatu, uste, jakin, ahaztu, erabaki, sinestu, plana izan/ egin ...</i></p> <p>Esan-aditzak adz.: <i>esan, deitu, oihu egin, garrasi egin, buila atera, hots egin...</i></p>
------------	---

II Atala: Ulermena

		Erantzun zuzenen adibideak	Erantzun okerren adibideak	Puntuak
0	Gustatu al zaizu ipuina?	Beroketa galdera, puntuatzen ez duena		
D1.	Zergatik egiten du salto txakurrak? (1-2 irudiak seinalatu) (1. Gertaera: Helburua)	Sagua lortu/ harrapatu/ ehizatu nahi du / saguarekin jolasteko Sagua nahi du Sagua ADITZA (lortu, harrapatu)-tzeko	Alde / korri / salto egin nahi zuen Txakurrak beti dabilta saltoka	0 1
D2.	Nola sentitzen da txakurra? (3. irudia seinalatu) (BET erreakzio bezala)	Haserre/ gaizki/ mina hartuta/ minduta/ ondo ez/ deseroso	Ondo / pozik / ongi	0 1
D3.	(D3 galdetu, kasu honetan bakarrik: haurrak D2 ondo erantzuten badu, baina azalpenik eman gabe. D2n ondo erantzun badu, puntu bat eman D3n eta segi D4ra.) Zergatik uste duzu, zergatik ote dago txakurra haserre / etsita / triste etab.? ⁸	Ezin izan zuen saga harrapatu/ ez zuen lortu harrapatzerik/ buruan kolpea hartu zuen/ zuhaitzaren kontra jo zuen Mina hartzen da zuhaitzaren kontra joz gero Saguak alde egin zuen	Erantzun desegokia/ zerikusi gutxikoa	0 1
D4.	Zergatik egiten du goruntz salto mutikoak? (5. irudia seinalatu) (2. Gertaera: Helburua)	Puxika/ Globoa lortu/ hartu/ berreskuratu nahi du Bere Puxika/ Globoala ADITZA (lortu, hartu...)-tzeko	Zuhaitzera/ zuhaitzetara igotzeko	0 1
D5.	Zer moduz, nola sentitzen da mutikoa? (6. irudia seinalatu) (BET erreakzio bezala)	Ondo/ ongi/ alai/ gustura/ pozik	Gaizki/ haserre/ amorratuta/ triste	0 1
D6.	(D6 kasu honetan bakarrik galdetu: haurrak D5 ondo erantzun badu, baina azalpenik eman gabe. D5 ondo erantzun badu, puntu bat jarri D6n eta segi D7ra.) Zergatik uste duzu dagoela pozik/ alai mutikoa? ⁹	Puxika/ Globoa berreskuratu du puxika/ globoa ADITZA (lortu, hartu...) ahal izan du/ -tzeko gai izan da	Irrifarrez dago/ zutik dagoela ematen du, edo bestelako erantzun desegokiren bat edo zerikusi gutxikoa	0 1
D7.	Zergatik hartzen ditu txakurrak saltxitxak? (5. irudia seinalatu) (Gertaera 3: Helburua)	Saltxitxak jan/ eduki/ ostu/ ebatsi nahi dituelako / erabaki duelako	Poltsarekin jostatu nahi du	0 1

⁸ Haurrak D2ren erantzunean esandako BET bera erabili.

⁹ Haurrak D5en erantzunean esandako BET bera erabili.

		Aukera aprobetxatzen du mutikoa begira ez dagoenean Ez zuen sagua harrapatzerik lortu/ ezin izan zuen zuen sagua harrapatu. Txakurrei saltxitxak / haragia ... gustatzen zaie (esanahi orokorra) Saltxitxak goxoak izaten dira		
D8.	Imajinatu mutikoak txakurra ikusten duela. Nola sentituko zen? (6. irudia seinalatu) (BET erreakzio bezala)	Gaizki / haserre/ triste/ amorratuta Ondo ez	Ondo/ ederki/ pozik/ gustura/ alai	0 1
D9.	<i>(D9 kasu honetan bakarrik galdetu: haurrak 8 ondo erantzun badu, baina azalpenik eman gabe. D8 ondo erantzun badu, puntu bat jarri D9n eta segi D10era.)</i> Zergatik uste duzu mutikoa gaizki/ haserre/ amorratuta... sentituko dela? ¹⁰	Txakurrak saltxitxak jan zizkion/ jaten ari da/ kendu zizkion Mutikoak saltxitxak berak jateko nahi zituen Saltxitxak mutikoarenak ziren	Erantzun desegokia	0 1
D10.	Lagunak izango al dira mutikoa eta txakurra? Zergatik?	Ez. Eman arrazoi bat, gutxienez (Txakurrak saltxitxak jan/ harrapatu zituen) edo bestelako erantzun egokiren bat	Bai / Ez dakit/ Bestelako erantzun desegokiren bat	0 1
D11.	Puntuak guztira 10etik:			

¹⁰ Haurrak D2ren erantzunean esandako BET bera erabili.

Protokoloa. Txorikumeen Ipuina.

Kontaketa / Birkontaketa / Eredupuina

Haurraren izen-abizenak: _____

Jaiotze data: _____

Testatze data: _____

Adina, testaren egunean (urte; hilabeteak): _____

Sexua: _____

Aztertzailearen izen-abizenak: _____

H₂-rekin hasitako adina (urte; hilabeteak): _____

Haur-eskolan hasitako data: _____

Haur-eskolaren izena: _____

Ziurta ezazu gutunazal guztiak mahai gainean daudela testa hasterako. Presta ezazu saioa grabatzeko hots grabagailua. Grabazioa beroketa hasi aurretik abiarazi.

Beroketa

Galdetu, adibidez: *nola izena du zure lagun onenak? Telebistan zer gustatzen zaizu ikustea? Gustatzen al zaizu ipuinak kontatzea? Gustatzen al zaizu ipuinak entzutea?*

Jarraibidea

Kontaketarako Jarraibidea

Haurraren parean eseri, berari begira. Esan iezaiozu: *Begira, hemen 3 gutunazal daude. Gutunazal bakoitzean ipuin bat dago. Bat aukeratu eta kontatu egin behar didazu. Irudiak zabaldu, sekuentzia osoa haurrak (berak bakarrik) ikusteko moduan. Lehenengo, istorio osoa ikusi, eta prest zaudenean, esan. Prest?*

Lehen bi irudiak zabaldu. Esan haurrari: *ipuina zuk kontatzea nahi dut. Irudiak ikusi, eta saiatu ipuina ahalik eta ondoan kontatzen. Haurra hasi nahi ezean dabilela irudituz gero, ondorengo bultzagarria erabil daiteke: “Kontaidazu ipuina” (irudia seinalatuz). Haurrak lehen 2 irudiak kontatzen amaitutakoan hurrengo biak zabaldu (1-4 irudiak ikusteko moduan). Prozesua berriro egin, ipuina bukatu arte. Ipuinaren erdian haurra isilik geldituz gero, ondorengo bultzagarriak erabil daitezke: “besterik?”, “segi”, “konta idazu gehiago”, “goazen ikustera zer gehiago gertatzen den ipuinean”. Haurra isiltzen bada, kontatzen bukatu duela adierazi gabe, orduan esan: “Bukatzen duzunean esan e?”.*

Haurrak bukatzen duenean, zoriondu, eta, ondoren, ulermen-galderak egin.

